


Bestearen ikuspegiak: mugako paisaia

Olartegiko Pasabide honetatik aurrera ia bi kilometroko luzera duen errepublikanoen defentsa-lerro handi bat zabaltzen da. Posizio horiek, antza, 1937ko urtarrila eta apirila bitartean gotortu ziren. Lasaitasun tirabiratsuen hilabeteak izan ziren horiek, nonbait, euskal frontean. Villarrealeko Bataila tragikoaren ondoren, bi aldeak jabetu ziren eraso zuzenera jotzekotan pairatzen zuten zaurgarritasunaz, eta, hori dela eta, euren posizioak gotortzen aritu ziren, gogorkiro gainera. "Frontearen solidotzeak" eremu honen "muga" zentzuaz ere ari zaigu.

1936ko udazkenean, bi aldeak berrantolatu egin ziren, ez bakarrik militarki, baita politikoki ere. Altxatutako Espainian, Franco jenerala Estatuko buruzagi eta jeneral izendatu zuten, "Espainia Berriaren" botere guztiak bere gain hartuz. Gerora lurralde osora iritsiko zen diktadura luzearen atariko baina ez zen. Espainia errepublikarrean eta euskal kasu partikularrean, aldiz, euskal autonomia eratu zen, Jose Antonio Agirre lehendakaria buru zuen behin-behineko gobernu batekin eta alderdi politiko guztietako sailburuekin – EAJ, PSOE, Ezker Errepublikanoa, Euzkadiko Alderdi Komunista, EAE-ANV eta Unión Republicana–, CNT anarkosindikalista izan ezik. Gobernu hori gerraren errealitate gordinak baldintzatuta egon zen beti, eta armada propioa antolatu behar izateko arduraren izan zuen, nahiz eta Estatu Nagusi errepublikanoaren agindupean izan. Era horretan, gerra-frontea, militarki aurrez aurre zeuden bi bando banatzeaz gain, guztiz ezberdinak ziren bi sistema soziopolitikoren arteko "muga" –muga arriskutsua, gero– ere bazen.



Eusko Jaurlaritzako Defentsa Sailak 1937an Olartegitik ateratako panoramika (Iturria: Avilako Artxibo Oro kor Militarra)

Olartegiko Pasabidean, hegoalderantz begiratzuz gero, sektoreko euskal defendatzaile errepublikanoek zuten ikuspegi laburra antzeman daiteke: muino eta herrien lerro bat –Elosu, Nafarrate–, denak etsaiaren, *Bestearen*, esku, hau da, militar matxinatuen eta

eskuindar boluntarioen kontrolpean. Zerumugaren lerroko elementu oro Errepublika eta euskal autonomia suntsitzera bideratutako gerra-makineriaren parte zen. "Haratagoko" herri eta txoko oro, berriz, hemendik sartu ezin zitekeen leku bat zen, frankismoaren ondorengo errepresioaren ondorioz – fusilamenduak, gartzela, erbestea, etab. –, beharbada, inoiz gehiago itzuli ezin izango zen leku bat. Finean, lurralde baten ikuspegia erditik moztuta eta gerraren eta jazarpen politikoaren izugarrikeriak menderatuta.

JOSU SANTAMARINA OTAOLA. ZIGOITIKO MEMORIA HISTORIKOAREN IBILBIDEAK

(2019-02-07) ERREPUBLIKAKO FRONTEA (1936-1937)